URAZA ezberdinen jarraipena negu udaberri garaian kantauri isurialdeko eremuan.

EGILEAK:
Iban Sabalza Hernaez (KARABELEKO etxalde agroekologikao)
Iker Goikoetxea Arana (KARABELEKO etxalde agroekologikao)
Oier Iurramendi (KARABELEKO etxalde agroekologikao)
Amaia Odriozola ((KARABELEKO etxalde agroekologikao))

Negu eta udaberrirako uraza barietate ezberdinen jarraipena.

1. SARRERA

Uraza edozein etxetan aurkitu ohi dugun barazkia izan ohi da eta horren arrunta izanik gutxitan erreparatzen diogu baratzean aurki ditzakegun letxuga mota ezberdinei. Batzuek baratzetik datozela ere ahaztu egiten dute dirudi beren egunerokotasunaren abiada ikusirik.

Aldiz baratzezainontzat uraza bat begiratzean iratiko oihanean bezainbeste ñabardura aurkitu ohi ditugu. Batetik kontsumituko duenaren gustu ezberdinetara egokituko diren hostoak, loretara igotzeko zailtasuna dituten ala ez, kolore ezberdinetarako platerak osatzen lagunduko dutenak, gure klimara ongi moldatuko direnak, garai bakoitzean ongi funtzionatuko dutenak...

Beraz gure etxaldeetan uraza barietateak hautatzean ezaugarri ezberdinei kasu egiten diegu (horretaz arduratzen bagara), beste batzuek aukeraketa hau mintegiko hautatzailearen eskuetan uzten dute. Batzuek oinordetzan barietate lokalen bat jasotzeko zortea izan dute eta horren erreleboa hartzen dute, besteek inguruko barietate lokal hauek bereganatu eta segida ematekoa. Baina gure kulturan kontserbatu ditugun barietateak urriak izanik egunerokotasunean etxe komertzialek eskaintzen dizkiguten barietate zerrenda luzean galduta ibili ohi gara eta barietate hauek jatorri ekologikoak badira are gehiago.

Ondorioz Karabelekon urtaro ezberdinetan oinarrizko uraza barietate ezberdinen jarraipena egiten ari gara gutxienez garai bakoitzean izan ditzakegun batabia eta hosto libreko urazen portaera ezagutu ahal izateko. Jarraipen honetan urte sasoi ezberdinetarako barietate ezberdinak probatzen ari gara hauen bizi zikloa jarraituz baina baita hauen dastatze bidez edozeinen aho zapailerako interesgarriak direnak ezagutzeko.

URAZAREN JATORRIA

Uraza (Lactucasativa L.) urteko landare bat izan ohi da eta badirudi Europako hegoaldean duela jatorria nahiz eta Erromatar garaian Europa osoan zehar hedatua izan zen. Jewtuszyk eta Saskewitz (2009)-ren arabera elikagai bezala duela 2050 urtetik kontsumitu izan da eta sendabelar bezala oso erabilia izan zen Egipto, Erroma, Pertsia eta beste herri batzuetan. Hainbat idatzitan Erromatarrek uraza barietate ezberdinak ezagutzen zituztela nabarmentzen da eta baita hauek zuritzeko teknikak ere. Antzeko zerbait gertatzen da Egiptoko kulturan ere, non, duela 6500 urteko hilobietan landare honen grabatuak aurki izan diren.

Gaur egun mundu osoan zehar kontsumitzen den barazki bat dugu, gordinik jaten diren hostoko barazkien artean hedatuena izanik. Balio nutritibo handikoa da C bitamina kantitate handiak ditu, xurgapen azkarreko gatz mineral ugari eta burdina bezalako elementuan oso aberatsa da. Entsaladetako protagonista izan ohi den barazki hau ezaugarri lasaigarria dituelako ere ezaguna da.

EZAUGARRI NAGUSIAK

Urazak landare autogamoak dira fotoperiodo luzekoak eta hostotza kolore, forma eta tamaina ezberdinekoak. Sustraiak ardatz forman hazten zizkio urazari alboko sustrai ugarirekin eta ondrioz azaleko sustrai egitura sortzen du eta beraz barazki honen mingain egitura lurreko lehen 30zmetan

garatzen da. Urazak modu ezberdinetan sailka daitezke baina normalean hiru talde handi desberdindu ohi ditugu:

Uraza kukuludunak: uraza hauen ezaugarri nagusia hosto xamurrak izateaz gain, euren hostoek kukulu egitura hartzen dutela da. Azken hamarkadetan, isuri kantauriarreko merkatu handienetan nabarmendu ohi den uraza mota dugu eta bertan sartu ohi dira hosto liso eta kizkurreko batabia ezberdinak eta baita "trocadero" edo supermerkatuetako apaletan horren hedatua dagoen "iceberg" barietate zapore gabea ere.

Uraza erromatarrak: buru luzanga dute bereizgarri eta baita hosto zurrun zein luzangak izatea horregatik askok "Asto belarri" edo "Oreja de burro" klaseko urazak bezala ezagutzen dituzte talde honetako barietateak. Barietate hauek isuri mediterranearrean askoz ere hedatuagoak daude eta Españia osoan oso kontsumituak dira. Konstumo eredu honen ezberdintasuna landareen egokitasunari zor zaio izan ere mota honetako urazek beroa ondo jasan ohi dute eta ondorioz klima beroetarako egokiagoak dira.

Hosto askeko urazak: uraza hauek ez dute kukulurik osatzen eta gainera hostotzak moztu aldi baten ondoren berriro jaiotzeko gaitasuna du. Talde honetakoak ditugu azken urteetan horren ezagunak egin zaizkigun lolo eta roble izenez ezagunak diren taldeak.

Hostoak erroseta moduan jaiotzen doaz zurtoin bau baten ondoan eta kasu batzuetan honela jarraitzen dute beren garapen osoan (uraza erromatarrak kasu) eta beste batzuk berriz uzkurtu egiten dira kukulu bat osatuz (uraza kukuludunen kasua). Urazen hostoak antzekoak iruditu arren mota ezberdinekoak izan daitezke, batzuk lixoak, besteak zerratuak eta baita adarkatuak ere.

Nekazariaren ikuspegitik eguraldi freskoetarako barazki egokia da eta bere bizi zikloa 60-90 egunekoa dela diogu izan ere hemendik aurrera landareak zakartzen eta loretara igotzeko prestatzen hasten baitira. Ziklo hauek gainera negutik udarara asko laburtzen dira eguraldia goxoagoa izaki. Hau honela da ikuspegi orokor batetik urazen garapen tenperatura hoberena 15ºC eta 18ºC dela esan ohi baita. Ondorioz tenperatura altuenak 21ºC inguruatik aurrera urazek lore zurtoina garatzeko joera hartzen dute beren barnean latex mikatza ugarituz eta ondorioz bere kalitatea gainbeheran etorriz (FAO 2006).

URTARO BAKOITZEKO BARIETATEAK

Negu garaia: Kasu honetan urri erditik urtarrila bitartean buruturiko landaketei dagokie garai hau. Landaketa hauek urtarriletik martxo bukaeraraino bilduak izan ziren naiz eta tartean uholdeak izan. Urteko sasoi honetan gertatu ohi den arazo nagusia tenperatura oso hotzak jazotzen direnean, landareak tamaina egokira ez iristea izan ohi da. Horregatik ikusi da interesezkoa izango litzatekeela hurrengo saiakeretarako manta termiko edo tunel bikoitzak burutzea.

Aldi honetan gainbegiraturiko barietateak negutegian egin dira izan ere kanpoan eskarolak eta atxikoriak landatu baitira. Probaturiko barietate nagusiak Rushmoor, Touriga, Florine, Haritz gorria, Haritz berdea eta Crispilla berdea izan dira.

Udaberri garaia: Aldi hau urtarrila bukaeratik martxo bukaera arte burutzen diren landaketak dira hauen mailakaturiko uzta apirila maiatzeraino luzatzen delarik. Kasu honetan otsaila erdi-arte negutegian burutu ziren landaketak eta ondoren kanpoaldean sasoi honetan barietate aldetik aukera zabalagoa izan genuen, hala nola lollo ezberdinak, haritz hostokoak

2. JAKINGARRI OROKORRAK

2.2. MATERIALAK

2.2.1. Saiakuntzaren kokalekua eta landatutakoaren datuak

Partzela: neguko landaketak 04-067, Garin 1 izenaz ezaguna dennegutegian burutu ziren. Udaberrikoak berriz 04-065 partzelan burutu ziren aire librean.
Aurretik landatua zegoena: ezer ere ez.
Lekuko moduan erabilitako barietateak: ez zen inolako barietaterik erabili lekuko moduan.
Ureztaketa: tantankazko ureztaketa sistema negutegian eta ezer ere ez kanpoaldean.
Ongarritzea: Ezer ere ez.
Tratamenduak: Ezer ere ez.
Nola jarriak: ilaretan, plastiko beltzezko estaltzailearekin. Negukoak negutegian eta udaberrikoak kanpoan.
Dentsitatea: 111000 landare hektarea bakoitzeko. Landatze-esparrua 30 x 30 cm-koa.
Egutegia: Landareak Blasenea mintegitik lortuak; landatzea: 3-4 astetik behin egin ziren 2014-ko azarotik hasi eta 2015-eko maiatza arte.
Saiakuntzaren eraketa:labrantza liburu bidezko jarraipena..

2.2.2. Eguraldi-datuak

Pirinioetako eta Kantauri aldeko mendietako ipar isurien artean dago Hernani. Leku horretan **nagusi diren haizeak ipar-mendebaldekoak dira**, eta horri gehitzen badiogu itsasoarekin duen hurbiltasuna, Atlantikoko klimaren ezaugarri den **klima epela** sortzen da ondorio moduan. Gune horren ezaugarri orokorra da urtaro lehorrik ez izatea, eta klima epel eta hezea izatea.

2.2.3. Saiakuntzaren deskribapena

Bi jarraipen nagusi burutu dira, bata neguan zehar negutegi barruan eta besteak berriz udaberrian eta kanpoan. Uraza mota ezberdinak gainbegiratu dira, batzuk kukuludunak (Florine, Marcord. Touriga, Elitis edo Rushmoor) eta besteak buru askekoak (Lollo berdea, lollorosa, roble gorria, roble berdea, Crispilla berdea). Aukeratutako barietate guztiak ekologikoak dira eta haiek merkaturatzen dituzten etxeen arabera negu eta udaberrirako egokiak dira.

Barietatea	Etxekomertzialarendatuak		Ekoizpendatuak			
	Etxekomertziala	Zikloteorikoa	Neguan (Negutegian)	(gr/unit)	Udaberrian (Aire zabalean)	(gr/unit)
Negu -Udaberri						
Crispilaberdea	Clause Spain	Batavia	**87**	**275**	**-**	**-**
Rusmoor	*Tozer Ibérica*	?	**62**	**-**	**58**	**-**
Florine	Clause Spain	Batavia	**77**	**394**	**58**	**489.2**
"Cantarix"	*Enza zaden*	**Hariztgorria**	**76**	**300**	**58**	**354.4**
"Hardy"	*Enza zaden*	**Haritzberdea**	**87**	**284**	**58**	**258.9**
"Lea"	*Enza zaden*	**Lollogorria**	**78**	**239**	**58**	**285.2**
"Dabi"	*Enza zaden*	**Lolloberde**	**78**	**226**	**58**	**226**
Touriga	*Enza zaden*	Batavia	**69**	**274**	**-**	**274**
Elytis	*Agrosemens*	Batavia	**69**	**-**	**58**	**393.8**
Marcord	Vitalisorganicseeds	Batavia	**-**		**58**	**427.6**

Florine

Uraza hone es du kukulu bat osatzen eta hazkuntza azkarreko burua eman ohi du.

Variedad lechuga no acogollada que se suele distinguir por su rápido crecimiento.

EZAUGARRIAK / PROPIETATEAK

Batavia motako uraza kukulu irekia Itxuraz zertxobait kixkurtua, hosto berdeak, lodiak eta buru ireki handi bat osatuz. Udazkenetik udaberrira erabili daiteke. Hosto kraskariak eta bereziki xamurrak buru aldean.

LABORANTZA INFORMAZIOA

Landaketa: azaroa - urtarrila - martxoa
Buru egitea: 77 - 78 - 58 egun
Landaketa markoa: 25 x 35
Produktibitatea: 394gr - 288gr -489gr
Interesa: Hazkuntza azkarrekoa dela.

SUKALDARITZA EZAUGARRIAK

Hosto sendoak eta kraskariak dituen barietatea. Zapore onekoa eta komertzioan erabili ohi den uraza estiloa.

CARACTERÍSTICAS / PROPIEDADES

Tiene hojas lijeramente rizadas, hojas verde initensas, tersas y genera una grancabeza abierta. Las hojas son crujientes y bastante tiernas hacia el centro.

CARACTERÍSTICAS DE CULTIVO

Trasplante: noviembre - enero - marzo.
Cosecha: 77 - 78 - 58 días
Marco plant.: 25 x 35
Productivida: 394gr - 288gr 489gr
Interés: Suele ser una lechuga de un crecimiento muy rápido.

CARCATERÍSTICAS CULINARIAS

Se trata de una lechuga con hojas crujientes. Tiene un buen sabor y es una clase de lechuga muy extendida en nuestra zona.

Haritz hosto gorria
"Cantarix"

Haritz hosto motako uraza gorria, urte guztian erabiltzeko modukoa dena.

Variedad de lechuga de hoja de roble rojo y que se puede cultivar todo el año.

EZAUGARRIAK / PROPIETATEAK

Haritz hostoko uraza zabalduena, kasu honetan barietate zertxobait ezberina izan ere kalibre handiko burua egiten baitu. Urte sasoi guztietan erabili daiteke.

LABORANTZA INFORMAZIOA

Landaketa: azaroa- urtarrila- martxoa- maiatza
Buru egitea: 76- 78- 58- 28egun
Landaketa markoa: 25 x 35
Produktibitatea: 305gr- 291gr- 354gr
Interesa: Bere hazkuntza azkarra.

SUKALDARITZA EZAUGARRIAK

Haritz hoto motako uraza gorria izanik deigarria da bere hsotoen tamaina eta gozotasuna.

CARACTERÍSTICAS / PROPIEDADES

Se trata de una hoja de roble muy extendida en colores rojos. La mayor diferencia de esta variedad puede ser su buen calibre y volumen.

CARACTERÍSTICAS DE CULTIVO

Trasplante: noviembre- enero- marzo- mayo.
Cosecha: 76- 78- 58- 28 días
Marco plant.: 25 x 35
Productivida: 305gr- 291gr- 354gr
Interés:Su crecimiento relativa-mente rápido.

CARCATERÍSTICAS CULINARIAS

Lechuga de hoja de roble que suele tener un calibre mayor y hojas muy suaves.

Haritz hosto berde
"Hardy"

Haritz hosto motako uraza honen berezitasuna bere kolore berdea litzateke.

Variedad de lechuga de hoja de roble que se distingue por el color verde claro de sus hojas.

EZAUGARRIAK / PROPIETATEAK

Haritz hosto motako uraza da, hosto kolore berde eta itxura samurrekoa. Buru tamaina ertaina garatu izan du eta emankortasun ona eman izan du.

LABORANTZA INFORMAZIOA

Landaketa: azaroa - urtarrila - martxoa - maiatza
Buru egitea: 87- 78- 58- 28 egun
Landaketa markoa: 25 x 35
Produktibitatea: 284gr - 295gr- 258.6gr
Interesa: hazkuntza azkarra eta hosto xamurrak dituela.

SUKALDARITZA EZAUGARRIAK

Hosto leunak dituen uraza bat da betiko haritz hostoetatik haratago beste itxura bat duena. Hosto samurrak izan ere badu kraskari puntu bat.

CARACTERÍSTICAS / PROPIEDADES

Lechuga de tipo hoja de roble que llama la atención su color berde y aspecto suave. Suele desarrollar una cabeza de calibre medio y ha solido dar una buena productividad.

CARACTERÍSTICAS DE CULTIVO

Trasplante: noviembre- enero- marzo- mayo.
Cosecha: 87- 78- 58- 28 días
Marco plant.: 25 x 35
Productivida: 284gr- 295gr- 258gr
Interés:crecimiento rápido y bastante regular.

CARCATERÍSTICAS CULINARIAS

Resulta ser una lechuga de aspecto suave, más allá de las hojas de roble más habituales. Tiene hojas muy suaves y tiene un punto crujiente.

Lollo berdea
"Dabi"

Lollo motako uraza berde berezia, urte guztian erabiltzeko modukoa dena.

Variedad de lechuga del tipo lollo pero de color verde y que se puede cultivar todo el año.



EZAUGARRIAK / PROPIETATEAK

Lollo motako uraza berde kixkurra. Buru oso borobila garatu izan du eta deigarria da bere hosto kixkurren itxura fina. Loretara igotzeko joera izan du eta kalibr eertaineko buruak garatu izan ditu.

LABORANTZA INFORMAZIOA

Landaketa: urtarrilla -martxoa - ekaina
Buru egitea: 76 - 58 - 28 egun
Landaketa markoa: 25 x 35
Produktibitatea: 226gr - 356gr -
Interesa: Lollo motako uraza bat izanik garapen azkarra eta itxura fineko uraza da.

SUKALDARITZA EZAUGARRIAK

Neguan eta udaberrian erabiltzeko uraza jan erraza. Zapore xamurra du nahiz eta itxura batean eskarola bat gogorazten digun.

CARACTERÍSTICAS / PROPIEDADES

Tiene hojas lijeramente rizadas, hojas verde claras y genera una cabeza abierta. y muy redonda. Ha demostrado tendencia a subir hacia flor antes que otros.

CARACTERÍSTICAS DE CULTIVO

Trasplante: noviembre - enero - marzo.
Cosecha: 76 - 58 - 28 días
Marco plant.: 25 x 35
Productivida: 226gr - 356gr -
Interés: Tratandose de una variedad del tipo lollo suele ser de crecimiento rápido y un aspecto fino.

CARCATERÍSTICAS CULINARIAS

Lechuga que se puede tener desde invierno hasta primavera y que suele comer muy facil. Tiene sabor suave en contraste al aspecto de una escarola.

Elytis

Batavia motako uraza barietate mantekosoa eta izatez buru erdi irekia egiten duena.

Variedad de lechuga de tipo batavia que se carcaterizapor tener unas hojas muy mantecosas.



EZAUGARRIAK / PROPIETATEAK

Batavia motako uraza bat da eta kukulu nahiko nabarmena osatu ohi du. Hostoak oso xamurrak izaten ditu eta bere buru garapena ertain-altua izan da.

LABORANTZA INFORMAZIOA

Landaketa: urtarrila - martxoa
Buru egitea: 69 - 58 egun
Landaketa markoa: 25 x 35
Produktibitatea: 404gr - 393gr
Interesa: Buru handiko aleak ematen ditu eta oso erregularrak

SUKALDARITZA EZAUGARRIAK

Uraza honen hostoak oso gozoak suertatzen dira. Honi eskerrak oso olio gutxiko entsaladetan ahoa oso ondo betetzen du. Prestatu eta bereala jan beharrekoa uraza da.

CARACTERÍSTICAS / PROPIEDADES

Se trata de una lechuga batavia con un cogollo bastante desarrollado. Su mayor diferencia es que se trata de una lechuga de tipo mantecosa. Se cultiva bien entre otoño y primavera

CARACTERÍSTICAS DE CULTIVO

Trasplante: enero - marzo.
Cosecha: 69 - 58 días
Marco plant.: 25 x 35
Productivida: 404gr - 393gr
Interés: desarrolla una muy buena cabeza y muy regular.

CARCATERÍSTICAS CULINARIAS

Sus hojas son mantecosas y suelen resultar muy dulces. Suelen llenar la boca de forma muy gustosa y son muy adecuadas para preparar ensaladas con poco aceite y gran contraste.

Crispilla berdea

Kukulurik egiten ez duen uraza kixkur bat dugu udaberritik udazkenera landu daitekeena.

Variedad lechuga no acogollada que se puede cultivar desde primavera hasta otoño.

EZAUGARRIAK / PROPIETATEAK

Forma borobildua eta kolore berde iluna. Hosto zabal eta motzak ditu esanguratsua izanik bere ertz oso kixkurrak. Ondo kontserbatzeaz gain hosto xamurra du.

LABORANTZA INFORMAZIOA

Landaketa: abendua - martxoa
Uzta: 87 - 58 egun
Landaketa markoa: 25 x 35
Produktibitatea: 278gr - 341gr
Interesa: loretara igotzeko erresistentzia nabaarmena ikusi ahal izan da.

SUKALDARITZA EZAUGARRIAK

Eskarola gogoratu arren bere ehundura xamurra da ahoan. Olioak irrist egiten dio eta beraz ez da hoso astuna geratzen entsalada batean.

CARACTERÍSTICAS / PROPIEDADES

Hace una cabeza de forma achatada con hojas de color verde. Es característico el aspecto de sus hojas rizadas pero que resultan mucho mas tiernas que una escarola. Lechuga bastante tierna n el paladar.

CARACTERÍSTICAS DE CULTIVO

Trasplante: diciembre - marzo
Cosecha: 87 - 58 días
Marco plant.: 25 x 35
Productivida: 278gr - 341gr
Interés: gran capacidad de aguante a la subida de flor.

CARCATERÍSTICAS CULINARIAS

Se trata de una lechuga que a simple vista nos recuerda una escarola siendo mucho mas suave y dulce que esta. El aceite resvala sobre las hojas por lo que no se apelmaza en las ensaladas.

Lollo arrosa “Lea”

Uraza honek hosto askeak ditu eta bere hostos kixkur bezain ilunengatik da ezaguna.

Variedad lechuga no acogollada que se carcateriza por tener hojas oscuras y muy rizadas.





EZAUGARRIAK / PROPIETATEAK

Lollo motako uraza bat dugu, hosto arrosak bioleta kolorekoak dituena eta oso kixkurrak. Buru altua garatu ohi du eta kalibre ertainekoa izaten da. Urte sasoi guztietan landu daitekeen barietatea da

LABORANTZA INFORMAZIOA

Landaketa: urtarrila - martxoa - ekaina
Buru egitea: 78 - 58 - 28 egun
Landaketa markoa: 25 x 35
Produktibitatea: 239gr - 285gr
Interesa: hazkuntza eta prdukzioari dagokionez errendimendu oneko barietatea da.

SUKALDARITZA EZAUGARRIAK

Lollo klaseko uraza guztiak bezala hosto aske eta oso xamurrak ditu. Bere kolore ilunak kontraste handia ematen diote platerari.

CARACTERÍSTICAS / PROPIEDADES

Se trata de una variedad de hoja suelta tipo “lollo” con hojas de color violeta oscuro y muy rizadas. Desarrolla una cabeza de calibre medio y se puede cultivar durante todo el año.

CARACTERÍSTICAS DE CULTIVO

Trasplante: noviembre - enero - marzo.
Cosecha: 78- 58 - 28 días
Marco plant.: 25 x 35
Productivida: 239gr - 285gr
Interés: se trata de una lechuga de muy buen rendimiento.

CARCATERÍSTICAS CULINARIAS

Como toda lechuga del tipo lollo posee hojas sueltas bastante suaves. Suele ser inetersante para buscar el contraste en los platos.